

Familia agurgarriak,

2020-2021 ez ohiko ikasturte honen hasierari buruz aritzeko zuekin harremanetan jartzen gara.

Hasteko, lehenago berriak ez zabaltzeagatik barkamena eskatu nahiko genizueke. Atzo bertan, irailaren 2an, kontingentzia planerako dokumentu berri bat helarazi ziguten. Une oro, buruan izan dugu ahalik eta informazio zabalena ematea. Izan ere, egunero korreoak azken berriekin bidaltzeak larritasuna sor zezakeela uste izan dugu. Erabakiarekin asmatu ez badugu, bihotzez sentitzen dugu.

Emozioak pil-pilean ditugu gizarte mailan. Familiak bezalaxe kurtsoa kezkatuik hasi dugu, baina elkarrekin egoera desberdinei ahalik eta hoberen aurre egingo diegula ziur gaude. Lehen esan bezala, kurtso hau ez ohikoa izango da. Bidean egoera desberdinak suertatuko zaizkigu eta modu bateratuan erantzunak bilatuko ditugu gure gazteen (zuen seme-alaben) formakuntzarekin jarraitzeko.

Hainbat familiak informazioa zuzeneko bileren bidez jasotzea nahiago izango zuten, baina gure esku ez zeuden arrazoiengatik ezin izan dugu komunikazioa horrela egin.

Segurtasunaren aldetik, aurreko ikasturtetik kontingentzia plan desberdinetan lanean izan gara, unean uneko errealitatera egokitzen joan direnak. Dokumentu honekin batera atxikituta doakizue azken momentuko egoerari erantzuteko osatu duguna. Ikasturtean zehar, egoeretara egokitzen joango gara eta dagokion momentuan zuei horren berri emango dizuegu. Kontingentzia planean segurtasuna, hezkuntza prozesu eta zerbitzuei buruzko puntu nagusiak landu ditugu, baita ikasleei lehen egunetan emango dizkiegun karpetetan dagoen informazioa gehitu ere.

Iazko ikasturte amaieran esan genizuen bezala, 2020-2021 ikasturtean liburu solidarioa maila guztietan ezarriko da. Bete beharreko dokumentazioa klaseko lehen egunean eramango dute. Behar dituzten gainontzeko materialei buruz ez kezkatu, informazioa emango dizuegu pixkana-pixkanaka.

1. eta 2. mailako ikasleak irailaren 7an hasiko dira. Ordu desberdinetan etorriko dira (ikus atxikitako dokumentuak) eta patioan emango diegu ongi etorria. Horrela distantzia mantendu ahal izango dugu eta merezi duten harrera egingo diegu. Tutoreek eta beste irakasle batzuek ikasleak haien geletara lagunduko dituzte eta normaltasun berri honetan eraikin barruan, zein eskolako beste instalazioetan, nola mugituko garen eta nola jokatu dugun erakutsiko diete.

3. eta 4. mailako ikasleak eta ZIG gelakoak irailaren 15ean hasiko dira, ordu desberdinetan (ikus atxikitako dokumentua). Egun honetan ere irailaren 7an erabilitako dinamika bera izango da, eta 1. eta 2. mailako ikasleen atsedenaldiarekin bat ez egiteko ezarri dugu ordutegia. Egun horretan greba deialdia dagoela jakin dugu eta bere eragina zein den jakitean, horren berri emango dizuegu.

Zalantza betetako uneak direla jakin badakigu, baina, era berean ziur gaude Eguzkitzako hezkuntza komunitatea osatzen dugun guztiok (ikasleak, familiak, irakasleak, hezitzaileak, administrazioko langileak, garbitzaileak eta udal langileak) dugun onena emango dugula sortzen diren zailtasunei aurre egiteko. Denon artean gure gazteen heziketa eta osasun fisikoa zein emozionala zainduko dugu.

Gure neska eta mutilek guk dugun onena merezi dute.

Agur bero bat.
Zuzendaritza.